



## Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

**PREMIO EUSKADI AGENDA 2030 SARIA**

2025-02-24 Vitoria-Gasteiz 24-02-2025

Herri agintari eta ordezkariok, EUSKALIT-eko zuzendaria, enpresa eta eragileetako ordezkariok, sarituok, jaun andreok, egun on guztioi!

Etorkizuna bermatzeko jaio zen 2030 Agenda. Garapen ekonomikoa, soziala eta ekologikoa uztartzeko, eta mundu orekatu eta justuago bat eraikitzeko.

Printzipio horiek konpromisoa eskatzen dute. Ez konpromiso abstraktua, eguneroko ekintza zehatzetan gauzatzen dena baizik.

Ez da bide laburrena. Ezta errazena ere. Baina bai egokiena, zintzoena, eta epe luzean emaitza onenak ematen dituen.

Hemen zaudeten guztiok ekin diozue bide horri.

Enpresa, elkarte, ospitale edo eskola bat aurrera ateratzea ez da ardua makala. Buruhauste eta kezka ugari daude ohiko kudeaketan. Are gehiago bizi dugun egoera ziurgabea.

Zuek, ordea, gelditu, eguneroko zurrunbilotik distantzia hartu, eta zeuen buruari galdera egin diozue: zer egin dezakegu, gure esparrutik, mundu jasangarriago bat eraikitzeko?

Zer egin dezakegu etorkizuneko belaunaldien alde? Zer egin dezakegu mundu hau hobetzeko zuen posizioetatik? Eta hau txalotzekoa da eta horretik gaurko ekitaldiaren beharra.

Zorionak eta eskerrik asko guztioi, gogoeta hori egiteagatik, eta ekintzetara pasatzeagatik!

Hoy reconocemos a empresas y entidades comprometidas con un modelo de competitividad “humano”, que pone a las personas en el centro.

El éxito es mucho más que una cuenta de resultados; el bienestar de las personas es mucho más que el PIB; y la sostenibilidad, mucho más que reducir emisiones o residuos.

Es también la capacidad de mejorar la calidad de vida de las personas, fortalecer nuestro sentido comunitario, generar empleo de calidad o fomentar un desarrollo inclusivo.

Las empresas, organizaciones, instituciones y la sociedad en general, debemos involucrarnos activamente en los desafíos ambientales y sociales que marcarán nuestro futuro inmediato, a pesar de lo que en otras partes del mundo estamos viendo y escuchando durante estas semanas.

No basta con fijar objetivos ambiciosos. Es necesario definir planes de acción, indicadores claros y herramientas para medir el impacto de lo que hacemos.

El camino que habéis decidido recorrer quienes hoy habéis recibido un reconocimiento de la Agenda 2030 requiere, por tanto, convencimiento, método y valentía. Requiere mucho trabajo, requiere fijarse en otros que han realizado buenas prácticas, pero además de todo eso también es inspirador para muchas otras organizaciones que



pueden seguir vuestro camino, y creo que hoy también había que reconocer eso: que inspiráis a muchos y a muchas que van a seguir vuestro camino.

La sostenibilidad es un reto global, pero también una responsabilidad individual y compartida, donde cada empresa, cada organización y cada persona tenemos un papel que jugar.

Esta responsabilidad se sustancia en acciones que contribuyen a construir un futuro mejor: conciliación corresponsable, flexibilidad horaria, empleo de calidad inclusivo, liderazgo de la mujer en el ámbito empresarial, formación, programas de salud mental o descarbonización, por ejemplo.

Pauso zehatzak dira, beraz, errealitatea eraldatzen ari direnak. Herri gisa ditugun balioekin bat datozenak, eta gure eredua indartzen dutenak.

Joan den urrian, Eusko Jaurlaritzaren Berrikuntza Sozialeko eta 2030 Agendako Plana onartu genuen.

Bide oparoa egin dugu orain arte, lana asko egin dela guztiekin batera, elkarlanean baina gehiago egin behar dugu. Oraindik gehiago egin behar dugu. Bai demokrazia indartzeko, eta baita gizarte kohesionatu eta lehiakorrako bat eraikitzen lagunduko duten proiektuak garatzeko baina pertsona beti erdigunean jarriaz.

Eskerrik asko zuen lanagatik eta zuen ekarpenengatik eta zuen inspirazioagatik.

Konpromisoari eusten diogu, zuek eusten diozuen bezala.

Asmatzea dagokigu, eta seguru nago, elkarlanean, lortuko dugula.

Zorionak berriz ere, eta mila esker guztioi!